

Orainarte ongi aztertu gabeko bi epentesis

MUÑA —I. Lan au zerengatik euskeraz. Izpefi batzuk.—
II. Euskeraren bilbakuntza (evolución).—III. Lenengo egiabidea (teoría). *Dakañe* ta *dakarte*... e. a. ¿T au zer da?—IV. *Zuek dakizue*. ¿Zerengatik eztute Axular, Leizarraga ta Oihenartek *dakizute* esaten?—V. Bizkaieraz *dakañena* ta *darabilena* nola ezagutu noiz diren «lo que trae, lo que mueve», ta noiz «lo que traen, lo que mueven». —VI. Bigañen egiabidea. Bizkaieraz beinola *noeala* ta *eroeala*, Oihenartek *nohela* ta *neroela*.—VII. Egungo eguneko fosil bat.—VIII. Oihenarten adizki zenbait.—IX. Gure egunetako idazle batzuen idaztankera.

I. Lantxo au, beste batzañen batean agertu bear banu, erderaz, Espainiako erderaz, egingo nuke. Lapurdiko irixko polit onetan eztut, ordea, erdera oñezaz agertu nai izan.

Euskeraz onelako eginenak argi ta garbi asi ta amaitzea lan zaila, neketsua ta oso gaitza dugu, nik beintzat, Gure mintzaera zâr maite oni, ikastetxêtan inoiz sartu eztelako, gogor egiten zaio *epéntesis* ta *teoría* ta *evolución* ta *conjuntivos* ta emen aipatu bear ditudan beste buruera edo idea batzuk erakustea. Epentesis adiarazteko *sarkizun* eztakit egokia oteden. Teoria-ren ordez bereala entzungo duzue lan au egiten diardudala bururatu zaidan itz beñño bat. Silvain Pouvreauren lan batean (enaiz oroitzen zeinetan zen) *gurentasun* noizbait irakuñi nuen erderazko *des-arrollo* (*dèveloppement*) eta *evolución* adiarazteko. Itz au bizkaieraz santidad bezalatsu da. *Aste gurena* semana santa, *eguen guren* jueves santo ta onelakoxe beste esakera batzuk auzêz ta eñaz darabilzkite

euskalki onetan. Beste itz bat, zuberotaŕen *bilbe*, oin egokiagotzat dadukat ofetarako. *Bilbakuntza*, des- arrollo ta evoluci3n adiarazteko, *gerentasun* baino egokiago dela dirudi. *Conjuntivo* euskeraz, beste itz artarakoago bat sortu eztadin bitartean, *alkarki* esan edo diteke.

Enaiz ni neronez izpeŕiketean (neologismoak egi- ten) gogo beroz ari izaten. Bart euskaltzain beŕiak erakutsi zigunez, lan ona luke gure euskerak izpeŕiketa au; eta noiztanka ta eretia dudanean nerau ere arazo latz onetan enaiz aleginez atzerena izango.

II. Aspaldion eskuartean beste bat edo biren artean lan luze ta gogaikari au darabilt: *La Evoluci3n de la lengua vasca*. Len aipaturiko izpeŕfia aintzat artzekoa balitz, *euskeraren bilbakuntza* eman lezaio euskerazko izentzat, Bizkai ta Gipuzkoan *aldakuntza* ulertefezago izanaŕen. Bi ataletan egin nai nuke lan au. Lenengo atala, Bizkaiko euskeraren *aldakuntza*, nolabait amaitua, bukatua, urhendua dut. Gipuzkeraz- koa ikasteko gairik eztugu, liburu zariik. Bigaŕen atalean Bidasoatik ononzko euskalkien *bilbakuntza* azaltzekotan Leizarraga ta Oihenart eta Axulaŕen idazkiak beŕiren beŕi irakuŕi ditut.

Uŕfengo batzar bat edo batzuetan ofezazko zerbait erakutsi nai nuke. Egungo onetan agertzeko eztut astirik izan. Iru idazle (izkribatzaile) orien adizkiak (flexiones verbales) aztertzen ari naizela bi egiabide edo teoria beŕi garmuŕn-artean egun auetan sortu zaizkit. Egiazkoak dirudite. ¿Egiazkoak ofedira? Lantxo onen leŕoak egun entzun eta biar edo etzi irakuŕi ditzazuenean, zuek eŕaz izango duzue galde labur ofi erantzutea.

III. Ona emen lenengo egiabidea (teoria). Bizka- ierazko *dakae*, *dakie*, *dinoe*, *dantzue*, *dirudie*...

eta abar beste euskalki geien geienetan, e azkenki ofen aurretik *f* dutela, esan oi dira : *dakarte, dakite, diote, dantzufe, dirudite*, eta berdin *dakuse* ta *dakuste, daroe* ta *daramate* ta besferen bat edo beste. *¿Zer oteda f au?* Ene ustez artizki edo *elemento epentéfico* bat baizik ezta. Azkentzat *vocal* bat dioten adizkiak (esaterako, *daki, dago*, noizbait *doa* ere bai, *dirudi, dino* edo *dio* eta auen antzeko beste batzuk) bizkaieraz *a* bear izafen dufe, *elemento conjuntivoren* bat gaineratzen zaienean, beste euskalkietan *e*. *Dakiana* bizkaieraz, *dakiena* beste euskalkietan; *dagoana* ta *dagoena, dirudiala* ta *dirudiela, dinoala* ta *diola*. Beraz beste euskalkietako *e* onék bi zentzun (acepción) ditu. Batzuetan *vocal epentéfica da*, beste batzuetan irugarren agente plural. Eta naste au argi ta garbi yarteko sartu zaie adizki (flexiones verbales) oriei len aipatu dudan *f*. *Dakiena* lo que sabe él ta *dakitena* lo que saben ellos; *dirudiena* lo que parece ta *dirudifena* lo que parecen ellos.

IV. Orain sei zazpireun bat urte euskeraz zu etzan orain bezala lagun bakar batentzat esaten, askorentzat baizik. Erderazko *vos* gure izkeran sartu zenean, bear bearekoa zan *vosotros* beste nolabait adiaraztea eta oretarako gaineratu ziztaton *e* ori, bai aditzean (verboan) eta bai besfela ere: *zu vos ta zuek* (Bizkaiko alde batzuetan *zuok*) *vosotros, dakizu vos sabéis* ta *dakizue vosotros lo sabéis*. Leizarraga, Oihenart eta Axularék, gure egunetan Gipuzkoako alde batzuetan oi denez, etzioten *dakizue* ori *f* artizkitzat ezarten. Bein ere, nik dakidala beintzat, ezta beren idazkietan *dakizue* irakurtzen. *Zeren eztaizue eguna eta ez orena* dio Axularék (Gero 56-6). *Segura zaitezte dakizuen bezala* dio Leizarragak (Mat. 27-65), *zuek adoratzem duzue eztaizuen* : Leizarragak au

ere (Joan. 4-22). ¿Zerengatik ezotezuten idazle zâr auek adizki orietan *t* aintzat artu? Obeki esateko ¿zerengatik ezotezuten orduko lapurtar, nappar ta zuberotarâk, eta egungoak zer dela ta eztute *t* orielako adizkietan erabiltzen? Bear etzelako ta eztelako. Len aipatu dudan *e* artizkia (*dagoena, dakiena, dabilena* eta beste adizki askoren *e* ori) aditzaren muñari ezari oi diogu (al núcleo verbal), bein ere ez beste gairi, beste elementu bat ez bati. *Dakigu* ointzat artuz eztu inork esaten *dakiguena, dakiguela, dakiguelako, beti dakiguna, dakigula ta dakigulako, Zuk dakizu* oin delarik *zuk dakizula* esan oi dugu beti, inoiz ere ez *zuk dakizuela*. *E* epentética muñaren (nucleoaren) geigarria da beti, *Dakiena* esaten dugunean, *t* bear bearekoa da adizki ori singular noiz den ta plural noiz yakiteko.

V. Onezaz gainera Bizkaiko euskalkiak beste zenbaitek bezalaxe *e* bear izaten du artizkitzat, aditzaren muñak azkengaitzat *r* naiz *l* dituenean. *Dakar* ta *darabil*-tik eztugu esaten *dakara*na ta *darabilana, dagoana* ta *dakiana* bezala. ¿Nola ezagutu daiteke ordea *dakara*na ta *darabilena* noiz diran singular «lo que trae, lo que mueve», ta noiz plural «lo que traen, lo que mueven»; nola? Beste euskalkien antzera *t* Bizkaikoan bagendu, erazago ezagutu genezazke singular ta plural auek. Azentuz ezagutzen ditugu; lo que trae *dakara*na (izki guziak tonu berdinean), lo que traen *dakara*na (azkeneko izkia bêrago); *berak dakiela* lo que él sabe (tonu batean), eta lo que ellos saben *eurak dakiela* (bi tonutan, azken izkia bêratuz).

VI. Goazen orain bigarren egiabidetxoaz azaltzera. Aditzen (verboen) artean bi ditugu beren muñaren azkentzat *a* dutenak; *yoan* ta Bizkaiko *eroan* (beste

euskalkietan *eraman*). *Oa* ta *roa* edo *rama* dira beren muñiak (núcleos): *ni oraintxe* NOA ta *ni ořek oraintxe* NAROA edo NARAMA. A oni alkarki bat gaineratu bear zaionean, bizkaieraz, epentesis-gisa, orain beřeun bat urte beste *a* bat gaineratzen zitzaion. Orain galdua da sarkizun au. Bidasoatik ononzko euskalkietan *e* izan zan aldi batez *noa* ta *narama* ta berok bezalako beste adizki batzuk bear zuten artizki edo infijotxo. Bizkaieraz *alaba*, *ařeba*, *neba*, *gona* ta auen antzeko *a*-dun itzetan, mugaitz edo artikuluaeren ařean, *a* ori *e* itzultzen da: *alabea*, *ařebea*, *nebea*, *gonea*. *Noa* ta *naroa*-ri beste *a* bat gaineratzen zitzaienean muñaren *a* (nucleoarena) *e* itzultzen zuten gure ařetiko idazleak. Micoleta zeritzaion Bilboko seme apaiz euskalariak orain beřeun bat urte *noa*, *oa*, *doa* idazten zuen eta *noeala*, *oeala* ta *daroeala*. Bere liburutxoaren 23 gařen ofialdean irakurtzen dugu *aditu yoeala gizona* que solía atender el hombre. Bařutia zeritzaion orduko beste idazle batenganikakoa da esakerařo au: *kazara* DOEAN *orduan* (Euskalzale. J. 413-41). Micoletak berak dio: *esan* EROEALA que solía decir (26-37). *Ostia gora* DOEANEAN cuando la hostia va arriba dio Capanagak (131-13).

VII. Egungo egunean *e* ori *i* itzuli zaigu ta gainera *fossil* dugu. Fosiltasun oni esker, beti ageri da *i* au Bizkaiko alde batzuetan, naiz adizki oriek bakařik diranean, naiz *na* ta *la* dituen aldi orotan. *Noia*, *oia*, *doia* ta *noiala*, *oianeko* ta *doianean* esan oi dugu nire yaioteřian. Beste batzuetan ere entzuten ditugu.

VIII. Micoletak, Capanagak eta Bařutiak bezala Oihenartek ere *noa*, *oa*, *doa* oso osorik esaten zituen. Alkarkiren bat gaineratzean *e* artizkiak *a* ori erauzten zuen. Ona bere 580-gařen atsotitza: *ergela da gordatzera* DOENA... es tonto el que va a guardar. Askozaz

politagoa da 675 gařena. *Uřunera* DOHENA ezkontzera, edo da enganatu edo DOHA enganatzera quien va lejos a casarse o se ha engařado o va a engařar. Oihenartek frantzesez onela eman zuen atsofitz eder au : «qui loing se va marier, ou il est trompé ou il va tromper». 166-gařenean au dio : EZTOELA *latsara gatzez duena oinzolara* no vaya a lavar el que tiene la planta del pie hecha de sal = n'aille, dio berak, n'aille a laver la lessive qui a les pieds faits de sel». Onelako beste adizki batzuk ere baditu Oihenartek. Bat ere eztute orėlakorik ez Leizarragak ez Axularėk. *Saulen ihesi* ZIHOALA dio Axularėk (GERO I. 90-1). Oihenartek *zihoela* esango zuen. *Deliberamendu handiagorekin* ZIHOANEAN dio Sarako erėtor ospetsuak (GERO I. 115-5), ez ordea *zihoenean* Oihenartek bezala. Leizarragarenak dira beste bi gertari edo exenplutxo auek. Lenengoa : *eta hura* ZIHOALA *hedatzen zituzten* (Luc. 19-36). Bigařena : *senda liezon bere semea, ezen hiltzera* ZIOAN (Joan. 4-47).

IX. Lan au ez luzeagotzearen, aipatu baizik eztut egingo nonnaiko ta noiznaiko euskeraren adizki askok eta gure egunetako idazle bat edo bestek darabilzkitenak duten alkar yotzea, alkar austeia. Leizarraga, Oihenart eta Axularėk, orduko ta oraingo erėiak bezala, *gizon batek dakiena, egia ezfirudiela, an dagoela, aitak nai zuen, batek egin duelako...* esan ta idazten zituzten. Gure egun auetako idazleren batzuk ordea, e artizki ori aintzat artu nai eztutelako, *dakina, ez dirudila, an dagola* (au erėari ere nonbait entzufen zaio), *nai zun, egin dulako...* idatzi oi dute. *I ta u* vocalak urėngo a erė batzuetan berendu egiten dute, *i ta u* biurtu : *geiigo*-ren ordez *geiigo, geiyo* ere bai, *Frantziin, Donostiin, eskuutan; esan nuen-en ordez esan nuun, ekaři zuela esan beařean ekaři zuula*.

Nuun ta zuula ta duulako laburtuak dira or goiko *nun ta zula ta dulako*.

Orain ogeita amar urte, geixeago noski, Bizkaiko euskalari bat, deklinazioneko *e* artizkia, bear etzen gai bat zela uste zuelarik, oso osorik erauzi ta kentzen asi zan; eta *kokotzean, ezpainetik, sudurêko...* eta auen antzeko beste itz asko onela erabili ta idazten zituen: *okotzan, ezpandik, surko...* eta abar. (Bizkaieraz beste euskalkietako *kokotz, ezpain ta sudur okotz, ezpan ta sur* dira).

Ongi begiratuertzkerok andia da eñiari gerta zaiona. Lenagoko gizaldietan eñiaren aurka (kontra) etzan inor goratzen; eta—gezurâ dirudiena—orduan Eñege ta Emperadoreak zuten-goitasuna ta soberania Eñiak duen egun auetan eñiaren aurka, batean Arana-Goiri, bestean Azkue (aldi batez beintzat), bestean besteren bat yaikitzen gera. Eñiari bear zaion lotsa ta begiramenâ gorde dezaiozun.

Amaitzeko iru bat iztxo. Atzo gure artean artu gimuen euskaltzain beñi Azkaindarâk, orainarte egin-dako lanez ta irabazpidez edo merituz berârenganatu duen aulkian, geroztik ere lan edêrak eta ugari egin ditzala, Bidasoatik ononzko euskalkiak gure ondo-rengoak argiro ta garbiro ikasi al ditzaten.

Azkainen, 28. XI. 1930.

AZKUE, *apaizak*.
